

ANOETA ESTADIOA

HISTORIA

Anoeta 1993an inauguratu zen, Kirol Kontseilu Gorenaren, Eusko Jaurlaritzaren, Donostiako Udalaren eta Real Sociedad de Fútbol S.A.D-en partaidetzarekin. Lanek 21 milioiko kostua izan zuten, eta 29.000 eserleku zituen hasieran. Instalazioaren jabe den Anoeta Kirol Etxearen webgunearen arabera, 1998ko birmoldaketaren ondoren 32.076ra igo zen eserleku kopurua. Horretarako, bi bastarde eraiki ziren ipar eta hego harmailan. Realak 2018. urterarte sinatu zuen kontratua, hamar urtez luzatzeko aukerarekin. Hasieratik, 1993tik, estadioaren jarduera nagusia futboleko zentratu den arren, errugbi partiduak, kontzertuak eta atletismo txapelketak ere izan dira bertan.

Behe-harmailako eserlekuen ikusmira txarrak, zeinak eguraldi txarraren aurrean babesik ez duen, eta erabilera urriko atletismo pistaren existentziak, 2003an Champions League jokatu zuen taldearen estadioa eraldatzeko proiektua abiarazi zuten. José Luis Astiazaran buru zuen zuzendaritza taldeak aurkeztu zuen lehen proiektua, Gipuzkoarena. Izaskun Larzabal arkitektoaren proiektuak 102 milioiko kostua zuen, eta 42.400 zale sartzeko gaitasuna (horietatik 9.000. fondoetan). Horrez gain, 110 logelako hotel bat zekarren proiektuak, baita gainontzeko hiru iskinatan dorre bana ere. Bi urte eta erdi iraungo zukeen lanen hasiera 2004ko abendurako zegoen iragarrita, baina proiektua atzera bota zen bideragarritasun zalantzak tarteko.

Zuzendaritza batzorde hark beste bi proposamen osatu zituen, hasierako Gipuzkoarena haren moldaketak zirenak. Aldaketa nabarmenak dorreen altueran zituzten proiektu berriak ere ez zuten arrakastarik izan. Espainia eta Portugalen 2018ko Mundialerako hautagaitza aurkezteak piztu zituen Anoeta egoitza orde izateko aukerak. Orduko alkate Odón Elorza eta Jokin Aperribay presidentearen arteko hitzarmenaren ostean, egile berak proiektu berri bat sortu zuen, zeinaren kostua ez zen argitaratu -KKGk diru kantitate handia ezarriko zukeen, kreditu bigunak lortzeko aukeraz gain-, baina bai eserleku kopurua: 43.650, Gipuzkoarenak baino gehiago. 2018ko Mundialaren egoitza Errusia izateak proiektua hura alboratzea ekarri zuen.

TESTUINGURUA

Ingalaterrako 1996ko Eurokopatik 2020kora, zeinak egoitza ezberdinak izango dituen, herrialde ezberdinek eliteko instalazioak berriztatzeko profitatu dituzte txapelketak. Bilboko San Mames Barria (53.562 eserleku eta 211 milioi euroko kostuarekin, haietatik 161 iturri publikotik jasoak) eta Bordeleko Grande Stade (183 miloiko kostua, haietatik 75 publikoak, eta 43.000 eserleku) izan dira gertuko adibideak. Bi instalazioak elkarte publiko-pribatuek kudeatzen dituzte.

Azken urteetan eraikitako beste zelai bat Juventus Stadium da, Torinokoa (125 milioi, 41.000 ikusle). Delle Alpiko lursailetan, Italiako taldeak beharrezko lursailaren ustiaketarekin egin zen, 99 urterako balioko dion 20 miloiko ordainketaren ostean. Hau horrela, Torinoko kluba bere zelai propioa duen lehen taldea italiarra bilakatu da. Continassa Juventus proiektua ez da estadiora mugatzen. Zelaiaz gain, lau izarreko hotela, entrenamendu zentroa, zentro komertziala, eta klubaren elkartetxea ditu. Aurrez aipatu bezala, 99 urtez kudeatzeko 180.000 metro koadroko lursaila du, zeinaren ustiapena berritu ahalko duen 11,7 milioiren truke.

Bestalde, Europar Kontseiluak udalen eta futbol klubaren arteko harremanak aztertzen dituen ikerketa itxi zuen uztailen. Esaterako, Willem II.aren kasua da (PSVrekin batera, ikertutako sei taldeetako bat); haiei dagokienez, Tilburgeko udalerriak estadioaren alokairuari zegozkion 2,4 milioi euro jasotzeari uko egin zion ikertzen da. Ikusitako sei kasuetan, "udalek talde hauek laguntzeko hartutako neurriak Europar Batasunak estatu laguntzen inguruan dituen arauak egokitzen dira", erabaki zen.

Espainiaren kasuan, Konpetentzia Batzordeak Real Madrilen lursail trukaketa batean, hiru talde valentziarren finantziarioan eta elkarte anonimo bilakatu ez ziren lau taldeen (Real Madrid CF, FC Barcelona, Athletic Club de Bilbao eta Club Atlético Osasuna) balizko pribilegio fiskaletan jarri zuen jo muga. Azken hauen kasuan, zergatan %25 ordaintzean, gainontzeko taldeen %30a beharrean. Guztira, 69 milioi euro ordaindu beharko lukete.

Instalazio berrien eraikuntzari dagokionez, leku aldatze onaren paradigmaz har daiteke Arsenal FC klubak Highbury-tik Emirates Stadiumera eginikoa. Erabile ezberdinekin etengabeko kontaktuan, (hasi babesleengandik eta zale nahiz bizilagunenganaino), unibertsitateetan aztertua izan da. Bere aldetik, QPRen zelai berriaren proiektuan zaleei kontsultak egin zaizkie, Everton FCk egin bezala.

EGUNGO EGOERA

EAEko Auzitegi Nagusiak 2014ko apirilean Javier Olaverri -zeinak Udala eta Realak bera auzitara eraman zituen- arrazoia emanatik, Realak lanak datorren udaberrian hasteko esperantza du. Epailearen aburuz, urtebete lehenago Hiri Antolamendu Plan Orokorra onartzean, gerora egindako aldaketa partzial orok – Udalbatzaren kompetentzia dela gogora ekarri zuen– bereziki justifikatua egon beharko zukeen, alderdi hori hautsizat emanaz. Epaia horren jakitun, inork ez zuen Auzitegi Gorenera jo.

Hurrengo saiakerak, egun batzuk geroago Realeko presidente Jokin Aperribay eta Ángel Oyarzun presidenteordeak aurkeztuak, OARCKekin egin zuen tupust. Eusko Jaurlaritzaren meneko atalak baliogabetu egin zuen Udalaren lehiaketa, “Realak gainontzeko eskatzaileen abiapuntu berean egotea aitortu ezina” zelako, “indarrean dagoen hitzarmenak (1993an sinatuari erreferentzia eginez) estadioaren ustiapena Realaren alde blindatuta egotea ezartzen duelako, gainontzeko enpresak negozio horretatik at utziz”.

Aste batzuk beranduago, aurreko legegintzaldiaren amaieraren eta egungoaren artean, hirugarren saiakera jarri zen martxan, plan bereziaren zatikako aldaketarekin. Izapide honek Irabaziren (proiektuaren aurka doan udal talde bakarra), Javier Olaverri abokatuaren eta 80. hamarkadan Herri Batasunako zinegotzi izandako Felix Sotoren alegazioak jaso ditu. Epaitegiek zer esango duten zain, OARCK beste helegite bati egin behar izan dio aurre, kasu honetan, lanen zuzendaritzaren kontratuari dagokionez. Behin konponduta eta nahi baina hilabete batzuk beranduago, Udalak berriz ere ireki du lehiaketa publikoa. Honekin batera, Anoeta Kiroldegia eta Real Sociedad de Fútbol, SADek Anoeta ustiatzeko hitzarmen berri bat sinatu dute irailean, lanen azken gastuak behin likidatuta indarrean sartuko dena eta 2067. urtera arte luzatuko dena.